EIBARKO UDALA

## ALKATETZAREN PROPOSAMENA — ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASAK— HIRIGINTZA ARLOKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA

## PROPUESTA DE ALCALDIA – TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS- TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES EN MATERIA URBANISTICA

Zerbitzu publikoak emateko tasak arautzen dituen egungo ordenantza fiskalean tasa bat dago sartuta hirigintzako espediente mota bi hauek izapidetzeagatik: hirigintza-partzelazioa eta hirigintza-zedulak.

La actual ordenanza fiscal reguladora de las tasas por la prestación de servicios públicos incluye una tasa por la tramitación de dos tipos de expedientes urbanísticos: parcelaciones urbanísticas y cedulas urbanísticas.

Alde horretatik, beharrezkoa da adieraztea Ordenantzak darabilen terminologia zaharkituta dagoela.

En este sentido, es necesario indicar que la terminología que utiliza la Ordenanza se encuentra desfasada.

Alde batetik, hirigintza-zedula 1976ko Lurzoruaren Legeak (gaur egun indargabetua) aurreikusten zuen dokumentu-mota bat zen, eta hirigintza-alderdi batzuei buruzko kontsulten zati txiki bat baino ez dira. Beraz, eguneratu egin behar da tasaren xedearen izena.

Por una parte, las cedulas urbanísticas eran un tipo de documento que preveía la ley del suelo de 1976, actualmente derogada, y que sólo constituyen una pequeña parte de las consultas sobre diversos aspectos urbanísticos. Por tanto, debe actualizarse la denominación del objeto de la tasa.

Eta, bestalde, hirigintza-partzelazioak lurzoruen jabetzaren egitura hirigintza-aurreikuspenetara egokitzeko egiten direnak baino ez dira; ostera, tasaren xedea zabalagoa da: partzelazio-eta banantze-lizentziak ematea eta jabetza horizontaleko titulua aldatzea.

Y, por otra parte, las parcelaciones urbanísticas son estrictamente las realizadas con el objeto de acomodar la estructura de la propiedad de los suelos a las previsiones urbanísticas y, sin embargo, el objeto de la tasa es más amplio: la concesión de licencias de parcelación, segregación y modificación del título constitutivo de propiedad horizontal.

Hori horrela izanik, beharrezkoa litzateke zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza aldatzea, hirigintza arloko espedienteen izapidetzari dagokionez, tasen xedearen deskripzioa errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko eta, hartara, proportzionaltasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa betetzeko.

Siendo esto así, sería necesario modificar la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas en lo referente a la tramitación de expedientes en materia urbanística para que la descripción del objeto de las tasas se acomode lo máximo posible a la realidad y cumplir así con el principio de proporcionalidad y de seguridad jurídica.

Esta propuesta, así como la normativa que definitivamente se apruebe, serán

Proposamen hau eta behin betiko onespena jasoko duen araudia Eibarko Udalaren webgunean kaleratuko dira; era horretan, hauxe ahalbideratuko da: alde batetik, indarrean den araudia eta hura prestatzeko prozesuari dagozkion dokumentuak eskuratzeko irispidea erraza, unibertsala eta eguneratua izatea; eta, bestetik, hartzaile izan daitezkeenak parte-hartze aktiboa izatea arauen prestakuntzan. Hori guztia gardentasun-printzipioaren baitan.

publicadas en la página web del Ayuntamiento de Eibar para posibilitar, por una parte, el acceso sencillo, universal y actualizado a la normativa en vigor y los documentos propios de su proceso de elaboración y, por otra, para que los potenciales destinatarios tengan una participación activa en la elaboración de las normas, todo ello en base al principio de transparencia.

Efizientziaren printzipioak dioena betez, araudiaren aldaketak saihestu egin nahi ditu beharrezkoak ez diren administrazio-kargak edo karga osagarriak, eta, hori aplikatzean, baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatu.

En aplicación del principio de eficiencia, esta modificación de la normativa intenta evitar cargas administrativas innecesarias o accesorias y racionalizar, en su aplicación, la gestión de los recursos públicos.

Azkenik, adierazi behar da planteatutako aldaketek ez dietela aurrekontu- eta finantza-egonkortasunari eragingo, ez baita aldatzen ez tasen zenbatekoa, ez haien xedea. Definizioa zehatzago ematen da, horixe baino ez.

Por último, indicar que las modificaciones planteadas no van a afectar a la estabilidad presupuestaria ni financiera en la medida en que no se modifica la cuantía ni el objeto de las tasas, simplemente se define de forma más precisa.

Esandako guztiagatik, PROPOSATZEN DUT:

Por todo lo anterior, PROPONGO:

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza arauemailearen eranskinaren 4. atala **ALDATZEA,** jardueraren edo instalazioaren funtzionamendua egiaztatu eta ikuskatzeko lizentziak ematekoa. Honela geratuko litzateke idatzita:

**MODIFICAR** el apartado 4 del anexo de otorgamiento de licencias de actividad y comprobación-inspección del funcionamiento de la actividad o instalación de la Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas que quedaría redactado como sigue:

4.- HIRIGINTZA ARLOKO ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEA

| | |
|---|---|
| Idatziz erantzutea hirigintza-kontsultei | 71 € |
| Partzelazio-, banantze-lizentziak eta antzekoak | 48 € |

4.- TRAMITACION DE EXPEDIENTES EN MATERIA URBANISTICA

| | |
|---|---|
| Respuesta escrita a consultas urbanísticas | 71 € |
| Licencias de parcelación, segregación y similares | 48 € |

Eibarren, 2021eko uztailaren 23an

En Eibar a 23 de julio de 2021

Alkatea
Jon Iraola Iriondo

El Alcalde
Jon Iraola Iriondo